

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektuak arrakasta izan dezan, hainbat elementu edo baliabide eduki eta gureganatzea ezinbestekoa da. Alde batetik, hainbat baliabide fisiko behar ditugu; lana egiteko lokal txiki bat erosiko dugu esaterako. Jarraitzeko, beharrezkoak izango ditugun materialak erosiko ditugu gure gailua egin ahal izateko. Ordenagailu bat ere ezinbestekoa izango da, gure bezeroekin harremanetan jartzeko. Beste aldetik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak beharko ditugu. Hasteko, Inhar eta Beñaten imajinazioa beharko dugu gure gailua nolakoa izango den irudikatzeko. Honekin batera, Iñigok zenbakiekin duen abilezia beharko dugu gure tenporizadorea martxan jartzeko. Azkenik, Ander eta Julenen jakinduria mekanikoa beharko dugu proiektua burutzeko eta ondo funtzionatu dezan. Baliabideekin amaitzeko, finantzaketa beharko dugu; hasiera batean prestamu bat eskatu dugu, eta proiektua aurrera doan bitartean, lortutako irabaziekin ordainduko dugu.